


Ebaluazio-motak. Normotipoa

Ebaluazio-objektua balioesteko erabiltzen den erreferentea da **normotipoa**. Hau da, konparabidean irizpen arrazoitua osatzeko erabiliko den elementua. Erreferente hori subjektuarekiko kanpokoa ala barnekoa izan daiteke, eta horren arabera, ebaluazioa **nomotetikoa** ala **ideiografikoa** izango da.

Ebaluazio nomotetikoa. Konparatzeko erabiliko den erreferentea subjektutik kanpo dago. Bi motatakoak bereiz daitezke: normarekikoa eta irizpideekikoa.

- **Normarekikoa.** Ikastaldea burututakoa konparabide hartuz ebaluatzen da subjektua. Horrela, ikaslea taldearekiko zein egoeratan edota lekutan dagoen erabakitzen da, eta erabiltzen den erreferentea ikastaldea menderatzen edota menderatzen ez duena. Ondorio zuzena izaten da ikasleen arteko mailaketa: “azkarrak” eta “horren azkarrak ez direnak”.
- **Irizpideekikoa:** Ikasleak bereganatua duena erkatzen da alde aurretik modu enpirikoan, eta ahalik eta modu zehatzenean, argienean eta objektiboenean ezarritakoarekin. Curriculumera etorrira, ebatzirik dago maila bakoitzaren amaieran ikasleak azaleratu beharreko komunikagaitasuna eta hori ebaluatzeko irizpideak eta deskriptoreak.

Ebaluazio ideografikoa: ikaslea bera da ebaluatzeko erreferentea (gaitasunak, garapenerako aukerak...) Hasierako diagnostikoa eskatzen du, duen gaitasun komunikatiboa aztertzeko eta ikastaldi jakin batean gara dezakeena erabakitzeko. Balorazio eta estimazio horren arabera ikaslea ebaluatua izango da prozesuan zehar izandako aurrerabidea balioesteko. Egindako estimazioarekin bat baldin badator ontzat emango da bilakaera. Aurretik azaleratuetako ebaluazio-motetan ez bezala, honetan borondatea eta esfortzua balioesten da, eta nagusiki, jarrera.



Gerta daiteke, ebaluazio ideografikoaren arabera, ikasle batek ontzak eman daitekeen bilakaera izatea, baina normarekiko eta irizpideekiko ebaluazioetan horrelakorik ez gertatzea. Eta alderantzizkoa, alegia, kanpoko erreferenteen arabera bilakaera onargarria izan eta ebaluazio ideografikoan horrelakorik ez gertatzea.

Hein berean adierazi behar da, ebaluatzeko garaian erreferentzia ezberdinak har baitaitezke ere, hizkuntza gaitasunen egiaztatze gintzan normotipoa dela irizpidea.